

Koldo Artola Kortajarena
Donostia, Gipuzkoa (1938)

Koldo Artola

Aurkibidea

Biografia

Koldo
Artola

Elkano kalean jaioa, zazpi senidetan gazteena. Ama Anoetakoa zuen eta aita donostiarra. Aitona (aitaren aita) pertsona ezaguna izan zen Donostian: Pepe Artola idazle eta antzezlea. Eta baita birraitona ere (Peperen aita), Ramon Artola idazle euskaltzalea. Alabaina, Koldok ez zuen euskararik jaso etxean, Donostiako giroa oso erdalduna baitzen gerraostean. 21 urterekin hasi zen euskara ikasten, eta handik aurrera euskalkiak izan dira bere pasioetako bat. Lanbidez aurrezki kutxa batean lanean aritu arren, nekaezin jardun du ahozko ondarea eta euskalkiak jasotzen, bereziki Nafarroan eta Iparraldean. Euskaraz mintzo ziren azken hiztunak elkarriketatu zituen hainbat herri txikitan, besteak beste Izaban eta Uztarrozen. Eta Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikorako hainbat eta hainbat inkesta egin zituen 14 urtean zehar, Aranzadi elkartearekin. Lanean jarraitu du gerora ere, jasotakoa transkribatzen, eta 2014an "[Ziorditik Uztarrozeraino](#)" lan mardula plazaratu zuen, inguru hartako azken hiztunen testigantzekin; testigantza horiek Ahotsak-en entzun daitezke, [Koldo Artolaren fondoan](#). Ohorezko euskaltzaina ere bada.

Zintak

DON-176

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2016-04-21
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

DON-177

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2016-04-21
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Ramon eta Pepe Artola idazle ezagunak

- **Erref:** DON-176/002
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitaren aita Pepe Artola zen, eta haren aita Ramon Artola. "Sagardoaren graziya" kanta egin zuen Ramonek, "Goizean sartu tabernara eta..." dioena. Aita Zabalak liburu bana eskaini zien. Ondoren, Pepe Artolari buruzko liburua idatzi zuen.

2. Pepe Artolak umorezko bakarriketak egiten zituen

- **Erref:** DON-176/003
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere aitona Pepe Artola jaio zela ehun eta berrogeita hamar bete zirenean, omenaldia egin zioten Donostian. Pepék umorezko bakarriketak egiten zituen, eta haiek antzeztu dituzte berriki. Pepék eta familiak margoketa eta enmarkazio tailerra zeukaten.

3. Pepe Artolak bertso sortak idatzi eta kaldereroak zuzendu

- **Erref:** DON-176/004
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:09:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Bere aitona Pepe Artolak bertso paperak ere idatzi zituen lehiaketetara aurkezteko. Hamar-hamaika urtez kaldereroen konpartsa zuzendu zuen. Ezaguna zen Donostian.

4. Rosario Artolaren lanak

- **Erref:** DON-176/005
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Rosario Artolak, aitonaren arrebak, ere idatzi zuen. Azken urteetan bere lanak ezagutarazi dituzte. Kale bati bere izena eman diote. Lan espiritualak egin zituela dio.

5. Pepe Artolaren eta Bilintxen kaleak

- **Erref:** DON-176/006
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bere aitona Pepe Artolaren omenezko kalea non dagoen azaltzen du, baita Bilintxen izeneko non dagoen ere.

6. Etxean ez zuen euskara jaso

- **Erref:** DON-176/007
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren aitak herri lanetan egiten zuen lan, eta batetik bestera ibiltzen zen familia. Izebarenean bizi izan zen ama Donostian. Amak euskaraz bazekien baina ez oso ondo. Garai zailak zirelako ez zietela gurasoek etxean euskaraz egin azaltzen du. Etxe askotan galdu zen euskararen transmisioa Donostian.

7. Euskara nola berreskuratu zuen

- **Erref:** DON-176/008
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:16:55. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaztetxotan mendira joaten hasi zenean, euskarazko leku izenekin jakin-mina piztu zitzaion euskararekiko. Anai bat Elbira Zipitriarekin ibili zen ikasten. Kontserbatorioan euskara irakasten zutela jakitean, bertara joaten hasi zen, Maria Dolores Agirre irakaslearekin. Soldadutzatik bueltan seriozki ikasi zuen.

8. "Mendi taldea" izeneko elkarte

- **Erref:** DON-176/009
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:19:22. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

<p>"Mendi taldea" izeneko elkarte bat sortu zuten. Afariak egiten zituzten, kantuz aritzen ziren, Iparraldera herri ospakizunetara joaten ziren... Lokalera norbaitek Bonaparteren mapa eraman zuen eta Izaba aldera joaten hasi ziren, bertako euskalkia ezagutzeko jakin-minez.</p>

9. Ikurrina debekatuta zegoenekoa

- **Erref:** DON-176/010
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:23:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Ikurrina debekatuta egon zeneko pasarteak kontatzen ditu.

10. Ume garaian, Donostian euskara gutxi entzuten zen

- **Erref:** DON-176/012
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:23:38. **Bukatu:** 00:26:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Umetako oroitzapenak kontatzen ditu. Donostian euskaraz oso gutxi entzuten zen. Gerora jakin zuen eskolan berarekin ibilitako askok euskaraz bazekitela.

11. Julian irakaslearekin euskarazko kantan

- **Erref:** DON-176/013
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:26:54. **Bukatu:** 00:30:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eskolako azken urtean, Julian irakaslea oso euskaltzalea eta estimatua zen. Euskarazko kantan irakatsi zizkien; artillero, adibidez. Eguberrietan gabon kantan abestera irten ziren; Gobernu Zibilera ere joan ziren kantura orduan.

12. Aita Zabalak aitonaren kontuak jaso zituen

- **Erref:** DON-176/015
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:30:43. **Bukatu:** 00:32:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Aita Zabalarekin harremana izan zuten. Oso euskaltzalea zen; bilketa lan handia egin zuen. Aitonari buruzko aurreneko liburuxkan, aitona Peperi buruzko anekdotak kontatzen ditu.

13. Aranzadin Euskal Herriko Atlas linguistikoa egiten

- **Erref:** DON-176/016
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:32:28. **Bukatu:** 00:36:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Fermin Leizaolaren bidez sartu zen Aranzadin. 70eko bukaeran Ferminek inkesta bat eskuratu zuen eta Euskal Herrian zehar galdeketak egiten hasi ziren. Euskal Herriko Atlas Linguistikoa osatu zuten horrela. Uztarrozeko emakume bati inkesta egitera joan zen Koldo, baita Zaraitzu eta Erronkari aldeko hainbat hiltzuni ere.

14. Fidela Bernat erronkariarrarekiko harremana

- **Erref:** DON-176/017
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:36:28. **Bukatu:** 00:38:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Erronkarieraz egiten zuen azken emakumea Fidela Bernat zen eta harreman polita egin zuten. Iruñean ezagutu zuen, Fidelaren lehengusu baten bidez.

15. Fidela Bernat erronkariarrak beti noka

- **Erref:** DON-176/018
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:38:41. **Bukatu:** 00:41:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Fidela Bernat erronkariarrari kosta egiten zitzaion Koldori ulertzea, baina Koldok irakurriak zituen erronkarierazko hainbat testu eta errazago ulertzen zion Fidelari. Beti noka egiten zuen, amarekin eta izebarekin hala egiten baitzuen euskaraz.</p>

16. Erronkarieraren hainbat ezaugarri

- **Erref:** DON-176/019
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:41:11. **Bukatu:** 00:42:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Erronkarieraren ezaugarri ezagunak aipatzen ditu. "Zeta" erdaraz bezala ahoskatzen zituzten.

17. Fidela Bernat erronkariarra Euskal Telebistan

- **Erref:** DON-176/020
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:42:46. **Bukatu:** 00:45:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Fidela Bernat erronkariarrari elkarrizketa egitera joan ziren Euskal Telebistakoak eta Koldok lagundu zien.

18. Pedro Irizarrekin batera aditzak biltzen

- **Erref:** DON-176/022
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:49:46. **Bukatu:** 00:54:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Aditzak biltzen aritu zen batean eta bestean, bereziki Nafarroan eta Iparraldean. Pedro Irizar azkoitiarraren lanari ekarpena egin zion. Irizarrek azpibarietateak gehitu zizkion Bonapartek egindako euskalkien sailkapenari. Azalpena ematen du.

19. Grabaketak egiteko aparatuak

- **Erref:** DON-176/026
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:00:26. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Elkarrizketak grabatu egiten zituen, baina aditz bilketakoak ez, eskuz jasotzen zituen. Grabagailuak hasieran kabledunak izaten ziren eta gerora piladunak erabiltzen zituen.

20. "Ziorditik Uztarrozeraino" izeneko lana

- **Erref:** DON-176/027
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:03:00. **Bukatu:** 01:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

"Ziorditik Uztarrozeraino" izeneko lana argitaratu zuen, lehenago egindako elkarrizketetako materialarekin.

21. Euskara eta biolentziaren artean lotura

- **Erref:** DON-177/006
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:18:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Biolentzia eta euskara lotzen zutenak asko ziren 70eko hamarkadan. Uztarrozeko Doroteo de Miguel aipatzen du, euskaraz gehiegi ez zekien arren, egiten zuela, eta etxe aberatsetako jendearen marmarra entzun behar izaten zuela.

22. Euskara berreskuratzen, ingurua biztanlez husten

- **Erref:** DON-177/007
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:18:29. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Zaraitzun eta Erronkarin mugimendu handia dago euskara berreskuratzeke. Ingurua biztanlez husten ari dela azaltzen du.

23. Azken hiztunak aurkitzeak pena eta poza

- **Erref:** DON-177/008
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:20:42. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Pena handia sentitu izan du azken hiztunak elkarriketatzerakoan, baina poza ere bai, bere euskara biltzea lortu izanagatik. Erron aurkitu zuen hiztun bati buruz hitz egiten du; saskiak nola egiten zituen eta azeriak nola harrapatzen zituen kontatu zion. Erroko Jose Villanuevak kontrabandoari buruzkoak kontatu zizkion.

24. Hegoaldeko nafarrerako esamolde batzuk

- **Erref:** DON-177/009
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Fontes Linguae Vasconum aldizkarian artikuluak idazten ditu. Hegoaldeko nafarreraren barruan, ohitura handia zuten esateko "paratu behar dut" esan ordez "Paratiardut". Beste esateko modu batzuk: "Egin zuen etxe bat handi", "lorea da txiki"...

25. Ohorezko euskaltzain

- **Erref:** DON-177/010
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:25:02. **Bukatu:** 00:27:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Ohorezko euskaltzain egin zuten, Pedro Irizarrekin batera, harekin egindako lanaren ondorioz. Zaharrenen artean euskaraz dakien inor badagoen galdetuz topatzen zituen hiztunak. Konstantea izan dela eta asko saiatu dela dio.

26. "Sagardoaren graziya" kanta

- **Erref:** DON-177/012
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:28:27. **Bukatu:** 00:29:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Sagardoaren graziya" kanta abesten du.

27. Ramon Artolaren eta Pepe Artolaren liburuak

- **Erref:** DON-177/014
- **Iraupena:** 0:05:24. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:36:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Ramon Artola Larrañagak eskuz idatzitako liburua, "Ipuiak edo kontutxoak" izenekoa. Pepe Artola Elizetxea aitona eskuz idatzitako liburuko hainbat pasarte irakurtzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com